

## 2. GAIA: ANTZINATEA, ERDI AROA ETA INPRENTAREN AGERPENA

Idea nagusia: inprentaren agerpena eta horrek ekarritako ondorioak

### 1. LEHENBIZIKO TEKNOLOGIA: IDAZKERA (Hitz idatzia) Historiaren sorrera

- Idazkera eta Historia. Eragin sakonak ekarri zituen zibilizazio ezberdinetan eta hitzaren etorkizunerako proiektzioa baimendu zuen. Etorkizunerako proiektzio mantentzea bermatzen da lan idatziekin
- Idazkera eta kultura.
- Idazkera hitzaren **teknologia** bat da.
  - Denbora eta espazioaren konkista bermatzen du. Kultura eta zibilizazio ezberdinek bere ondarea bermatzea ahalbidetzen du teknologia honek
  - Diskurtsoa ikusgai jarri zuen: ebaluazio kritikoa. Entzumenean oinarritzen den kulturatik, ikusgarria den komunikaziora igarotzen dira.
  - Euskarri ezberdinak.

#### ● ANTZINATEA

- Galdetu ea ikasi behar den, bere hitzak: *“ez larritu, bakarrik da ikuspegi orokor bat izateko”* esan du
- Idazkera agerpena: Mesopotamia Sumeriarren kultura (garapen ekonomikoarekin lotzen da) (K. a.3000). Hauek izan ziren idazkera asmatu zuten lehenengoak, hieroglifikoek bidez egiten zuten
- Garapen ekonomikoa (ureztatze sistema) soberakinak. Ureztatze sistema garatu zuten zeinari esker uztak garatu eta soberakinak sortu ziren. Soberakin horiekin elkar-trukaketa ailegatu zen eta elkar-trukaketa horietan elkar ulertzeko sortu zen idazkera
- Feniziarrek ekarri zuten Greziara Sumeriarren alfabetoa.
  - K. a. 850.
  - Ahozko eta idatzizko kulturaren garapena. Greziaren kultura idatziak ez dio konpetentziarik egingo ahozko kulturari.

- Agoraren protagonismoa (Zentralitatea) Greziaren kulturaren erakusle, plaza publikoa da Agora. Kultura eta transmisio orala gailentzen da, hitza da nagusi.
- K.a. I informazio publikoaren hasiera. Borondate bat dago idatzizko ohiturak legeak idatziz hedatzeko
- **Erromatar Inperioaren** lurralde hedapena. (Inperioen hazkundearekin lotzen da aro hau) Dominioak zabaltzen diren heinean, borondatea dago, sorturiko lege horiek imperioetako leku horietara zabaltzeko
- Ahozko eta idatzizko kultura.
  - Foroaren protagonismoa.
  - Posta ofizialak. Ahoz transmititzen zen postak erabiliz, postontzi moduan funtzionatzen zuten zaldunek, haiei kontatzen zitzaizkien gauzak eta beraiek ziren “*las palomas mensajeras*”
  - Annali Maximi (urtero ateratzen diren gerra eta garaipenak agertzen diren dokumentuak dira) eta Acta Senatus (senatuaren aktak). Komilla artean “dokumentu ofizialagoak” dira hauek.
  - Diurna Urbis Acta. Egun, egunkari kontsideratzen dugun horretatik gertuen dagoena da. Egunerokotasunari garrantzi handia ematen zioten, informazio politikoa negozioen inguruko informazioa... Egunero ateratzen zen egunkaria litzateke. Julio Cesarrek sortutako zerbait dela pentsatzen da.

Termino hauek dira Erromatarrek garatzen dituzten dokumentu idatziak (Annali Maximi eta Diurna Urbis Acta)
- Propagandaren garapena. Ez da bakarrik diskurtsoen garapenean planteatzen, baizik eta hiriak ere propagandaren euskarri bihurtuko dira, garaipen arkuekin, eraikinekin (Enperadoreak herriarentzat egiten zuena)... Eta bestalde eskulturetan enperadorean burua ateratzea, boterearen sinboloa zen. Boteretsuen handitasun hori proiektatzeko egiten

zuten. Bestalde, txanponak ere zeuden, txanponean agertzea erregearen figura boterearen sinbolo

- **ERDI AROA**

- Mendebaldeko Inperio Erromatarraren bukaeratik (476): Inprentaren agerpenera arte eta Elizaren barruko Zisma-ra arte. Erdi aroa bukatu egingo da inprentaren sorrerarekin, inprentak lagunduko dio erreforma protestanteari Europa osoan zehar arrakasta lortzen.
- Ezkortasunaren garaia. Ezkortasunaren garaia dugu, gaixotasunak, jakintzen galera...
  - Segurtasun eza
  - Inbasioak
  - Gaixotasun eta plaga endemikoak
  - Jakintza klasiko guztia alboratua, "itzalpean" geratu zen eta sineskeria erlijioso berriek emango diote gizakien galderei erantzuna
- Elizak Erdi Aroko bizitzako esparru guztiak kontrolatu. Eliza guztiaren erdia izango da, X.Mendean hasiko da elizari kompetentzia egingo dion mugimendu bat sortuko da: Humanismoa
- Klero erregularra jakintza eta ezagutzen monopolioa. Klero hori jakintzaren tenplua kontsideratzen zen
- Kultura klasikoaren kontserbazioa. Grezia eta Erromatik eredatutako kultura eta jakintza hori kontserbatzeko ardura izango zuen Kleroak.
- Elizaren Komunikazio Sistema: beraiek dira informazio eta kulturaren monopolioa dutenak
  - Monasterioak: *Kopistak* (kopiatzen dutenak) eta *Scriptorium*-ak (kopiak egiten zituzten gelak: bertan kopiatuko dituzte eskuz, antzinateko datuak).
  - Latina. Hori izango da haien hizkuntza eta jainkoaren hitza, eta haiek ere erabiliko zuten. Elizaren komunikazio

sistema eta teozentrismoa hedatuko zuten: predikazioa, gurutzadak eta artearen bidez.

- **Predikazioa, Gurutzadak eta artea.** Elizaren mezua zabaltzeko 3 bide hauek zeuden. Artea garai honetan da elizaren mezua zabaltzeko biderik honena, zuzenena, artea eta irudiak dira mundu guztiari elizaren mezua iristarazteko (gehienak analfabetoak zirelako) modurik onena. Artea pedagogikoa da, hezitzailea izango da.
- **Analfabetismoa eta ahozkotasuna.** Sakondu eta hedatu egin da analfabetismoa, horren haritik artea gailentzen da.
- **Teozentrisimoa:**
  - **Jainkoa da Unibertsoaren zentroa**
  - **Lurreko bizitza, igarobide bat da**
  - **Heriotza eternitateko atea eta lurreko bizitzaren zamen liberaziorako bidea.** Bizitza hau kaka hutsa da baina gero paradisua duzu zain, lasai!
  - **Baina pixkanaka teozentrismo hori zalantzan jarriko da, zergatik? Ondorengoagatik:**
- **X.mendetik aldaketak:** hirien garapena, merkataritza, artea eta kulturaren hedapena. Horrek ondorio gisa ekarriko du:
  - **Komunikazio Sistema Laikoaren agerpena.** Komunikazio sistema propio sortuko dute (Merkatariek eta burgesek)
- **Unibertsitateak Monastegien konpetentzia** .(Unibertsitateak izango ziren Monastegien bertsio laikoa). Bere baitan sortuko dira ondorengoak:
  - **Sorbona, Bonolia, Oxford, Cambridge, Salamanca**
  - **Eskolastika eta Humanismoaren sehaska.** Hemendik hasiko dira sortzen jakintza berriak. Planteatzen dutena da arrazoitzeko kapazitatea daukala gizarteak. Orain arteko Teozentrismoa dudan jarriko dute (fedea ez du dena konpontzen, ez dira ateak bilakatuko baina bai zientzian eta arrazoian oinarrituko direla gauzei erantzun bat emateko, eta ez soilik fedean). Jakintza berrien sorburu eta hedatzaileak izango dira unibertsitatean.

- **Kopistak.** Kopista propioak kontratatuko dituzte, unibertsitatearen kompetentzia izango dira.
  - **Xilografiaren garapena** (Inprentaren hastapenetan dagoen teknika bat xilografia, inprimatzeko forma moduko bat)
- Idazkeraren berpizkundea
- **Posta sistemak.** (Zaldiz hauek ere) Hasieran unibertsitateen arteko komunikazioa garatzeko erabiltzen zituzten
- **Ahozko (juglareak eta trobalariak) eta idatzizko (menantis: italiar merkadereak dira, portuan daudenak eta komertziora dedikatzen diren pertsonak. hauek informazioa lortzen dute eta eskuz idazten dute gero informazio hau saltzeko) informazio transmisioa.** Hau lotuta dago hirien eta merkataritza handia garatzen den hirietan.

## ● **INPRENTAREN AGERPENA**

- **Gutenberg Aroa (Marshall McLuhan):** *“Gizon tribal eta analfabetoa, bere esperientzia guztiak entzutezko antolakuntzapean bizi zituena, alboratua izan zen eta Gutenbergiar gizona gailendu zen. Alfabeto fonetikoaren teknologiaren barneratzeak gizona mugiarazi zuen, entzumenaren mundu magikotik ikusmenaren mundura”*
- Inprentak, idazkeraren agerpenarekin garatu zen lengoaiaren dimentsio bisuala sakondu eta indartu zuen.
  - Ahozkotasunarekin ohituta dagoen gizon hori, idatzizko kulturara ohitzen hasiko da
- **Johannes Gutemberg eta inprenta modernoa (1440)**
- Negozio bat izango da inprenta, kulturaren garapenean ezinbestekoa izango dena.
- **INKUNABLEAK:** (hasierako dokumentu eta liburu idatziei ematen zaien izena)
  - 1500 arteko produkzioei horrela deitzen zitzairen. Hemendik aurrera liburuen ezaugarri formaletan estandarizazio bat sortuko zen. Garapen bat dago

hasierako gremiotik momentu honetako gremiora, negozioa estandarizatuz joango da.

- Eskuizkribuaren itxura kopiatu.
- Artisau batek dena egiten zuen.
- Idazkera geroz eta gardenagoa.

(\*) Linguae Vasconum Primitiae (1545).

- INPRENTA ERREFORMA PROTESTANTEAREN IRAULTZAREN LAGUNTZAILE NAGUSIA IZAN ZEN
- Erreforma Protestantea, Eliza Katolikoa erreformatzeko borondatek sortu zen: Zisma ekarri zuen
  - Induljentzien salmentak eta ustelkeria. Hitz gutxitan esanez, elizak fededunen kontura dirua ateratzea, elizak pekatarietara barkamena ematen diete diruaren truke.
  - Martin Luteroren *95 Tesiak*, Wittemberg-eko elizan (1517) Panfleto honetan ustelkeria hau salatu zuen.
  - Inprentari esker, hedapen handia eta bizkorra: Eliza barneko eztabaida teologiko sakona lehenengo Alemania guztitik eta gero Europa guztitik
- Eliza Katolikoaren Zisma ekarri zuen. zisma = banaketa
- Protestantismoak ez du aita santuaren boterea errekonozituko eta fededun bakoitzak bitartekaririk gabe irakurri eta interpretatu behar duela jainkoaren hitza (la biblia)
- Protestantismoa eta inprenta:
  - Testu sakratuak herri hizkuntzetan: irakurketa eta interpretazio pertsonala bultzatzeko eta ez Latinez
  - Herri hizkuntzen sendotze eta batasunean lagungarri.
  - Liburuaren salmentaren lagungarri.